

JARDUERA



Kronograma egitea

1

HELBURUAK

- Proiektuaren faseak diseinatzea.
- Egitekoak zehaztea.
- Lan-prozedurak diseinatzea.
- Arduradunak izendatzea eta haien parte-hartze maila zehaztea.
- Egutegia finkatzea.

prozedura

Zuzendaritza-taldeak eta Hizkuntza Proiektuaren koordinatzaileak beharrianak, lehentasunak, helburuak... aztertuko dituzte proiektua testuinguratzeko eta ekimen honek eskatzen duen lan-prozesuaren tamaina balioesteko.

Hizkuntza Proiektuaren batzordean honako hauek zehaztuko dira: prozesuaren faseak eta egiteko desberdinak, arduradunak, fase horietako bakoitzean parte hartuko duten eragileak eta fase horiek burutzeko behar den denbora.

| emaitza ekoizpena | | denbora denboralizazioa | |
|--|--|---|--|
| Hizkuntza Proiektua egiteko edo gaurkotzeko kronograma. | | Hiru orduko lan-saioa. | |
| tresnak | | ereduak adibideak | |
| 1.1. tresna. Hizkuntza Proiektuaren kronograma antolatzeko txantiloia 51. or. | | 1.1. adibidea. Hizkuntza Proiektua egiteko kronograma 117. or. | |